



# NESKAMEAREN IPUINA

Margaret Atwood

Itzultzailea: Zigor Garro

2020  
URRIA

Freden neskamea da Gileadeko Errepublikan. Komandantearen eta haren emaztearen etxetik egunean behin ateratzen da elikagaiak erostera, errotuluetan hitzak ez baizik eta irudiak dituzten saltokietara, emakumeek debekaturik baitute irakurtzea. Buruz gora etzaten da hilean behin eta otoitz egingo du Komandanteak haurdun utz dezan, jaiotze tasak beherantz egin zuenetik Freden eta gainerako neskameak beren obarioen emankotasunaren arabera balioesten baitira. Hori guztia isilik eta burumakur beteko du, baldin eta Kolonietan edo Horman amaitu nahi ez badu. Jokamoldea, janzkera eta sexu jarduna ez bezala, desira nekez da gobernatzen, ordea, eta Fredenek lehen-go bizitza gogoratuko du: bere senar Lukerekin amodioa egiten zueneko; alabarekin jostatzen zeneko; ofizio bat, beraren dirua eta ezagutzarako sarbidea zituenekoa. Orain, akabo guztia. Antzipazio izugarritz, 80ko hamarkadan kaleratu zuen Margaret Atwoodek eleberria, bere prosak ohi duen sarkasmo sotil eta ideien argitasuna lagun. Urteek indartu baizik ez dute egiten istorio lazarri hau.

## ELEBERRI DISTOPIKOA

ISBN: **978-84-18252-20-4**  
ORRIALDEAK: **320 (inguru)**  
FORMATUA: **12 x 19**  
PREZIOA: **22,00 €**

### Liburuko pasarte bat:

“Zaudete lasai, zioten telebistan. Guztia kontrolpean dago. Aho bete hortz nengo. Denok geunden berdin, hori badakit. Nekeza zen sinestea. Gobernu osoa, modu horretan desagertua. Nola sartu ziren, nola gertatu zen? Orduantxe eten zuten Konstituzioa. Aldi baterako izango zela esan zuten. Ez zen inolako kale-istilurik egon. Jendea etxean geratzen zen gauetan, telebistari begira, argibideren baten bila. Ez zegoen atzamarraz seinalatu zenezakeen etsairik”.



### MARGARET ATWOOD

(Ottawa, 1939). Quebecen hazi zen eta Toronton bizi da. Berrogei liburutik gora argitaratu ditu, eta hamaika sari eta aipamen jaso ditu bere ibilbide osoan; bere izena behin baino gehiagotan aipatu izan da Nobel sarirako. Genero ugari jorratu ditu, hala nola saiakera, eleberria, gidoia, ipuin laburrak eta poesia, bai helduentzat eta bai haurrentzat; nolana ere, eleberriek eman diote ospe handiena: besteak beste, *The Edible Woman* (1970), *The Robber Bride* (1994), *Alias Grace* (1996) eta *The Blind Assassin* (2000). Azken horrek Booker Prize saria jaso zuen. Bere obran maiz agertzen diren gaiak dira generoa eta identitatea, hizkuntzaren indarra, erlijioa eta mitoa, klima aldaketa eta trama politikoa. Hiru eleberrri distopiko ezagun ere baditu: *Neskamearen ipuina* (1985) eta horren jarraipena den *The Testaments* (2019) - argitaratutako azken liburua ere bada-, eta *Oryx and Crake* (2003). Idatzitako lanez gainera, bestelako ekarpenak egin dizkio Kanadako literaturari, berak sortu baitzituen Griffin Poesia saria eta Writers' Trust of Canada, kanadar idazleen aldeko gobernuz kanpoko erakunde bat. Ingurumenaren eta feminismoaren aldeko ekintzailea ere bada. Atwooden lana berrogei hizkuntza baino gehiagotara itzuli dute, eta *Neskamearen ipuina* da lehen argitalpena euskaraz.



**txalaparta**

Tfno. 948 703 934 | info@txalaparta.eus  
www.txalaparta.eus